

ALKARTU DANOK

Mezearen egunerokoa eta
beste eleiz - abesti batzak

EUSKERAZALEAK

C. de Larreátegui, 14-2.^o BILBAO-1

ALKARTU DANOK

MINISTERIO DE INFORMACION Y TURISMO

DELEGACION PROVINCIAL EN Bizkaia

depositado a las 13,20 horas del día 29 de Mayo 1987
en la Delegación Provincial,

Mezearen egunerokoa eta
beste eleiz - abesti batzak

Conforme:

EUSKERAZALEAK

Asociación para
el fomento del vascuence

C. de Larreátegui, 14-2.^o BILBAO - 1

Liburu onetako abestiak, euren soiñu ta guzti, orra nun aurkitu zeinkezan:

- B.: "Salmoak", Iratzeder/Lertxundi, Belloc, 1963.
(Itzak: "Salmoak", Aita Akesolo, Bilbao, 1964).
- M. D. A.: "Meza Deuneko Abestiak", bizkaieraz: Bilbao, 1965.
- M. D. A.: "Meza santurako abestiak", Donostíko Seminarioa.
- E. A.: "Eleiz-Abestiak": Amuriza'tar Xabier, Derio, 1965.
- L.: "Lagunarteko mezea": I. Berriatua, Bermeo, 1957.
- I.: "Meza euskeraz": Intxausti'tar Arturo, Bilbao, 1966.
- A.: "Eleiz-abesti-sorta": Aranburu.
- K.: "Kantikak", Bilbao, 1948.
- P.: Planas.
- S. A.: San Anton-orriak.

(Bear direan baimenakin)

Gráficas ELLACURIA — Buenos Aires, 13 — Bilbao

MEZEAREN EGUNEROKOA (Erriak esatekoak)

ALTARA-AURREKO OTOITZAK

 **Aitaren eta Semearen
eta Espíritu Santuaren izenean. Amen.**

ABADEAK.—Banator Jaungoikoaren altarara.

ERRIAK.—Nire poza dan Jaungoikoagana.

A.—Gure laguntza: Jaunaren izena.

E.—Zeru-lurren Egillearena.

ABADEAK.—Nik, pekatari... Jaungoiko gure Jaunari.

**E.—Jaungoiko alguztiduna errukitu beite zugaz
eta zeure pekatuak parkaturik,
betiko bizitzara eroan zaizala.**

A.—Amen.

**E.—Nik, pekatari onek, / autortzen dautset Jaungoiko
alguztidunari, / Andra Maria beti Birjiñari, / Zoriondun
Migel Goi-aingeruari, / Zoriondun Joan Bautistari, /
Pedro ta Paulo Apostolu Santuai, / beste Santu guztiai, /
eta zuri, Aita orri, / pekatu larregi egin dodala / goga-
penez, itzez eta egitez, / neure erruz, neure erruz, neure
erru andiz. / Augaitik eskatzen dautset Andra Maria
beti Birjiñari, / Zoriondun Miguel Goi-aingeruari, / Zo-
riondun Joan Bautistari, / Pedro ta Paulo Apostolu San-
tuai, / beste Santu guztiai, / eta zuri, aita orri, / otoi
egin deyo zuela nire alde / Jaungoiko gure Jaunari.**

A.—Jaungoiko alguziduna... eroan zayezala.

E.—Amen.

A.—Jaun alguztidun... pekatu guztien parkamena.

E.—Amen.

A.—Jauna, biurtu gugana eta emoiguzu bizia.

E.—Eta Zugan poztuko da zure erria.

A.—Agertu guri, Jauna, zure errukia.

E.—Eta salbau gaizuz.

A.—Entzun, jauna, gure eskaria.

E.—Eta eldu bedi Zuganaño gure deia.

A.—Jauna zuekaz.

E.—Eta zure espirituagaz.

KYRIE

Erruki, Jauna. Erruki, Jauna. Erruki, Jauna.

Kristo, erruki. Kristo, erruki. Kristo, erruki.

Erruki, Jauna. Erruki, Jauna. Erruki, Jauna.

GLORIA

AINTZA ZERUETAN JAUNGOIKOARI,

eta batea lurrean Aren gogoko gizonai.

Zure aintzaren andiz diñotzugu :

Gora Zu,
bedeinkatu Zu,

agur Zeuri,

aintza Zeuri,

eta eskerrak Zeuri,

Goiko Jaun, zeruetako Errege,

Jaungoiko Aita alguztidun orri.

Jesukristo Jaun, Seme bakar,

Goiko Jaun, Jaungoikoaren Bildots,

Aitaren Seme:

munduko pekatua kentzen dozun orrek
izan guretzat erruki;

munduko pekatua kentzen dozun orrek
entzun gure deia;

Aitaren eskumaldean jesarrita zagozan orrek,
izan guretzat erruki,

Zeu bakarrik Santu,

Zeu bakarrik Jaun,

Zeu bakarrik Gorengo, Jesukristo,

Espíritu Santuagaz batean

Jaungoiko Aitaren argitan. Amen.

AGURRA

ABADEAK.—Jauna zuekaz.

ERRIAK.—Eta zure espirituagaz.

PISTOLA ONDOREN

A.—Jaungoikoak esana.

E.—Gora Zeu, Jauna.

EBANJELIOAREN ASIEREA

A.—Jauna zuekaz.

E.—Eta zure espirituagaz.

A.—Ebanjelio Santuaren zatia (edo asierea)-en liburutik.

E.—Aintza Zuri, Jauna.

EBANJELIO ONDOREN

A.—Jaungoikoak esana.

E.—Gora Zeu, Jauna.

CREDO

Siñisten dot Jaungoiko bat bakarra,
Aita alguztiduna,
zeru-lurren Egillea,
agiri diran ta ez diran gauza guztien.
Siñisten dot Jaun bat, Jesukristo,
Jaungoikoaren Seme bakarra,
gizaldi guztiak baño len Aitagandik jayoa;
Jaungoikoagandik Jaungoiko,
Argitik Argi,
egizko Jaungoikoagandik egizko Jaungoiko,
sortua, ez egiña,
Aitaren izate bereko,
gauza guztiak Bera bitarte egiñak dirala;
gu gizonokaitik eta gu salbatearren
zerutik jatsia, ta Espiritu Santuaren egitez
Maria Birjiñagandik aragia artu
ta gizon egin zana;
Pontzio Pilatoren menpean
gugaitik kurutzean josia,
nekaldua ta obiratua izan zana,
ta Liburu Santuak esan ebenez,
irugarren egunean biztu zana;
zeruetara igoa eta Aitaren eskumaldean
jesarrita dagoana;
andik barriro biziak eta illak epaitzera
aintzaz etorri ta
amaibako erregetza izango dauana.

Siñisten dot Espiritu Santua,
Jaun eta bizi-emollea, Aita ta Semeagandik datorrena,
Aitagaz eta Semeagaz batean
agur eta goramen berbera artzen dauana,
Igarleen agoz berba egin ebana.

Eta Eleiza bat bakarra,
Santu, katoliku ta apostolutarra.

Autortzen dot Bateo bakar bat,
pekauten parkamenerako.

Itxaroten dot ilien biztuerea,
ta gero betiko bizitza. Amen.

ORATE, FRATRES

ABADEAK.—Egin otoitz, anaio... gogoko izan dakion.

ERRIAK.—Artu bei Jaunak zure eskuetatik opari au,
bere izenaren aintza ta goramenerako,
geure arimen eta bere Eleiza santu osoaren onerako.

PREFAZIO - AURREKOA

A.—Jauna zuekaz.

E.—Eta zure espirituagaz.

A.—Gora biotzak.

E.—Jaunagan daukaguz.

A.—Eskerrak Jaungoiko gure Jaunari.

E.—Egoki ta bidezko da.

SANCTUS - BENEDICTUS

SANTU, Santu, Santua,
Izadiaren Jaungoiko Jauna.
Zeru-lurrak zure ederrak beterik daukaz.
Hosanna zerugoieta!
Ondo etorria Jaunaren izenean datorrena.
Hosanna zeru-goieta!

MEZA - ERDIRAKO

ABADEAK.—Au da sinismenaren misterioa.
ERRIAK.—**I** eta **biztu zarala, Jauna:**
zu barriz etorri arte, au dogu, au barri ona.

AITA GUREA ETA ONDOKOA

ABADEAK.—Egin daigun otoiz... barik esan daigun:
GUZTIAK.—**Aita gurea, zeruetan zagozana,**
santifikadu bedi zure izena,
betorkigu zure erreinua,
egin bedi zeure borondatea zeruan lez lurrean be.
Emoiguzu gaur geure eguneroko ogia, parkatu eiguzuz
gure zorrak,
geuk gure zordunai parkatzen dautseguzan lez,
eta eiguzu itxi tentaziñoan jausten;
baña gatxetik jagon gaizuz.
ABADEAK.—Jagon gaizuz... gizaldien gizaldietan.
E.—Amen.

OGI - ZATITZEA

A.—Jaunaren bakea bego beti zuekaz.
E.—Eta zure Espirituagaz.

AGNUS DEI

Munduko pekatua kentzen dozun / Jaungoiko-Bildotsa, /
erruki zakiguz.
(Ilein mezetan: **emoyezu atsedena**).

Munduko pekatua kentzen dozun / Jaungoiko-Bildotsa, /
erruki zakiguz.
(Ilein mezetan: **emoyezu atsedena**).

Munduko pekatua kentzen dozun / Jaungoiko-Bildotsa, /
emoiguzu bakea.
(Ille mezetan: **emoyezu betiko atsedena**).

ECCE AGNUS DEI

A.—Ona emen munduko... Jaungoiko-Bildotsa.
E.—Jauna, ez naz ni iñor / Zu nire etxearen sartzeko; /
baña berba bat esaizu / eta osatuko naz. (Iru bider).

JAUNA ARTZEAN

A.—Kristoren gorputza.
E.—Amen.

AZKEN - ONESPENA

A.—Jauna zuekaz.
E.—Eta zure Espirituagaz.

A.—Bedeinkatu zayezala... eta Espiritu Santuak.

E.—Amen.

AZKEN - AGURRA

A.—Zoaze Jaunaren bakean.

E.—Eskerrak Jaungoikoari.

(Ostean beste eleizkizunik danean):

A.—Goratu daigun Jauna.

E.—Eskerrak Jaungoikoari.

MEZA - ASIERAKO

1 ALKARTU DANOK

(B. 83-s.; 374 orr.

M. D. A. 15 orr.

E. A. 4 orr.)

— *Alkartu danok eta kanta:
Jauna geugaz bat daukagu-ta.*

1.—*Zatoze danok bat batera,
Jaunaren berbak entzutera.*

2.—*Goratu Jauna danok kantuz,
bere Pazkoa gogoratuz.*

3.—*Maitasun eta federatuen,
danok anai lez batu gaiten.*

.....
8.—*Aintza Aitari, Semeari
ta Espiritu Santuari.*

2 BIOTZ BATEZ ALKARTURIK

(M. S. A. 9)

- 1.—Biotz batez alkarturik Zugana gatoz, Jauna.
- Emoiguzu zure Argi, grazi ta maitasuna:
entzun arren, Jauna!
- 2.—Altarean aurkitzen da kristau alaitasuna.
- 3.—Gurutzean ta altarean daukagu osasuna.
- 4.—Jaun zerukoak, bear dogu biotz-garbitasuna.

3 IGON NADIN

(M. S. A. 2)

- Igon nadin Jaunaren altarera:
Bera dot nire poza ta alaitasuna.
- 1.—Izan, Jauna, nire epailaria;
gaiptoagandik urrun nire bizia.
- 2.—Gizon gaitzo maltzurrugandik
atera nagizu onik.
- 3.—Zu zaitut indar, ene Jaungoiko:
zergaitik nauzu uxatu Zugandik?
- 4.—Bialdu zure egiaren argia:
ori dot nire gidaria.
- 5.—Eroango nabe mendi santura,
zure altara santura.

4 IKUSTEN DOGU

(E. A. 18 orr. Doiñua: "Ikusten duzu goizean")

- Ikusten dogu altaran Jesus maitia
gure zain gaur dagola maitasunez.
- Goazen guztiok alkarturikan,
goazen arinka poz-pozez.
- Goiko Jaunari Beragaz Opari ona
eskeitzten zintzo-zintzo ta biotzez.

5 JAINKO JAUN ZERUKOA

(M. D. A. 3 orr.)

- 1.—Jainko Jaun zerukoa, Aita danik gorenengoa.
Jainko Jaun zerukoa: arren, erruki zakiguz!
- 2.—Jainko Jaun zerukoa, biotz neurririk bagekoa.
Jainko Jaun zerukoa: arren, erruki zakiguz!
- 3.—Jainkoaren Semea, Kristo, gizonen Eroslea.
Jainkoaren Semea: arren, erruki zakiguz!
- 4.—Jainkoaren Semea, danen Jaun eta Erregea.
Jainkoaren Semea: arren, erruki zakiguz!
- 5.—Espiritu Santua, ixuri maitasuneko sua.
Espiritu Santua: arren, erruki zakiguz!
- 6.—Espiritu Santua, goi-arnasez barriztu mundua.
Irutasun Santua: arren, erruki zakiguz!

6 SARTU ELEIZ SANTU ONTAN

(E. A. 8 orr.)

— *Sartu eleiz santu ontan,
goraka ta kantuetan.*

- 1.—*Ona guztion aterpea, barrua zein pozaz dotan,
anai-arrebak batera Jaunari erreguetan.*
- 2.—*Egin leku Jainko Jaunari zuen biotz barrenetan;
Aren berba santuz bizi gaiten bere esanetan.*

7 ZEIN GOZO TA EDER DAN

(E. A. 9 orr.)

- *Zein gozo ta eder dan anaiok alkartu
eta danok batera Jainkoaa goratu.*
- 1.—*Gora biotzak eta guztiok egin kantu,
Jainkoak bere eskuz salbatuko gaitu.*
 - 2.—*Zabal gogoak Jaunaren berbak entzuteko,
bere naia jakiñik zuzen ibilteko.*

8 ZUGANA GATOZ

(L. 3 orr.)

- *Zugana gatoz erruki eske,
Aita Jaungoiko santua:
parka eiguzu, garbitu gaizuz,
damu dogu pekatua.*

IRAKURGAIEN OSTERAKO

9 AGUR, OSPE

(E. A. 12 orr.; M. D. A. 16 orr.)

— *Agur, ospe Zuri, Jauna.*

10 AINTZA TA ONEСПENA

(E. A. 11 orr.; M. D. A. 16 orr.)

— *Aintza ta onespena Zuri, Jauna.*

11 ALELUIA

12 GORA ZU

(E. A. 11 orr.; M. D. A. 16 orr.)

— *Gora Zu, Jauna; gora Zu, Jauna; gora Zu, Jauna.*

13 JAUNAGAN DOGU

(E. A. 11 orr.; M. D. A. 15 orr.)

- *Jaunagan dogu gure ustea;
Aren berbetan gagoz pozetan.*

14 ZURE BERBEA

(E. A. 11 orr.; M. D. A. 15 orr.)

— Zure berbea gordeko dogu biotzean.

15 SIÑESTEN DOT

(M. D. A. 6 orr.)

- *Siñesten dot! Siñesten dot!*
- 1.—**Siñesten dot Jaungoiko Aita alguztiduna,**
zeru-lurren egillea.
 - 2.—**Siñesten dot Jesukristo,**
bere Seme bakar gure Jauna.
 - 3.—**Espíritu Santuaren egitez sortu**
ta Maria Birgiñagandik jaio zana.
 - 4.—**Pontzio Pilato'ren menpean nekaldua,**
gurutzean josia, illa ta obiratua izan zana.
 - 5.—**Inpernuetara jatsi ta irugarren egunean**
illen artetik biztu zana.
 - 6.—**Zeruetara igon eta Jaungoiko Aita**
alguztidunaren eskumaldean
jezarrita dagoana.
 - 7.—**Andik biziak eta illak**
epaitzera etorriko dana.
 - 8.—**Siñesten dot Espíritu Santua;**
Eleiza Santu Katolikua, Santuen Alkartasuna.
 - 9.—**Pekatuen parkamena, ildakoen biztura,**
betiko bizitza. Amen.

ERRI - OTOITZERAKO

16 BIOTZ ONEZ

(E. A. 13 orr.; M. D. A. 16 orr.)

— Biotz onez, Jauna, entzun gure erreguak.

17 ENTZUN, JAUNA

— Entzun, Jauna; entzun, Jauna.

18 ENTZUN, JAUNA

— Entzun, Jauna: eskatzen deutsugu.

ESKEINTZARAKO

19 ARTU, AITA

(M. D. A. 7 orr.)

— Artu, Aita zerukoia, Jainko beti-betikoa,
artu gure Oparia: ogia eta ardaoa.

1.—Ona Ogia, guztiz garbia:
arren, danori emon grazia
eta illeri zure bizia.

2.—Ona Ardaoa, zerurakoa:
eldu bekigu onen gozoa;
salbau dedilla mundu osoa.

3.—Ona biotzak, ona etxeak,
ona emen gu garan guztia:
egin dagigun zure naia.

20 MIRAGARRI TA AUNDIA DA

(Doiñua: A. Donostia'ren "Oñazez")

— Miragarri ta aundia da, mai santuan dagoana:
gure Jesus bertan dago, eskeintzen Opari ona.

Goazen guztiok, Beragaz bat-bat,
Opari au eskeintzera;
gure pekatuen samin aundiagaz
biotza daigun dardara.

21 OGIA TA ARDAOA

(M. S. A. 13 orr.)

— Ogia ta ardaoa eskeintzen deutsuguz;
ogi ta ardao orreikin eskeintzen gara gu.

1.—Ogia dogu, Jauna, emen bearrezko,
baiña Zu barik ezin bizi, ene Jainko.

2.—Ardaoa egingo da Jesus'en odola:
gure pekatu danak parkatu daizala.

3.—Gitxiegi ba'da be emoten doguna,
Zure esku zabalez ugaritu, Jauna.

JAUNARTZERAKO

22 ABESTU DAIOGUN

(Doiñua: Busca Sagastizabal'en "Cantemos al Amor...")

- Abestu daiogun Maitasunari,
abestu Jaunari: Jauna emen dago.
Erdu, gau-gurtzallea,
gurtu daigun Jesus Eroslea.
Aintza Zuri, o Jesus:
zeru ta lurruk onetsi zaizala!
Aintza ta gora Zu, Zeruko Errege:
maitasuna Zuri, Jaun laztana !

23 AINGERUEN JANA

(Doiñua: "Panis Angelicus"; itzak, "Orixe")

- 1.—Aingeruen jana, guretzat emona,
zeru-ogi orrek baztertu dau mana.
Arrigarri dana! Zeru-lurren Jauna
gaixo baten jan-edana.
- 2.—Jaun Irutan Bakar, eskatzen deutsugu:
naiaren neurrrira etorri zakiguz.
Bide zuzenetik artu gu zerura,
zaozan toki argitsura.

24 ARIN-ARINKA

(I. 17 orr.)

- Arin-arinka Zugana gatoz, uso zurien antzera:
gure biotza eta bizitza Zuri, Jesus, eskeintzera.
- 1.—Iturburuak otzez ikara; gure biotzak su-garrez.
Zugana gatoz, Jesus maitea, Zu jatearren poz-pozez.
- 2.—Zu barik, Jauna, ezer ez gara: eldu gugana, Maitasun.
Gure biotzak eskarrez bete: izan guretzat Goiko Jaun.
- 3.—Biurtu zara janari bigun: guretzat zara dan-dana.
Egin gagizuz Zure maitale, eldu gaitezen Zugana.

25 JAINKOAREN BILDOTSA

(M. D. A. 11 orr.)

- 1.—Jainkoaren Bildotsa, Jesus Jaun maitetsua,
illez kentzen dozuna munduaren pekatua:
Jainkoaren Bildotsa, erruki zakiguz.
- 2.—Jainkoaren Bildotsa, Jesus Jaun maitetsua,
illez kentzen dozuna munduaren pekatua:
Jainkoaren Bildotsa, erruki zakiguz.
- 3.—Jainkoaren Bildotsa, Jesus Jaun maitetsua,
illez kentzen dozuna munduaren pekatua:
Jainkoaren Bildotsa, emoiguzu bakea.

26 OGI ZERUTIK

— *Ogi zerutik etorria:
Zu zara gure poz guztia.*

1.—Bildots santua, ara emen,
munduko gatxak kentzearren
sagrarioan non dagoen,
lurra zerauz bat egiten.

2.—Misteriorik aundiiena,
Jaungoikoaren oroimena:
gozotasunik gozoena,
gizonetzako dagoena.

27 OI GAUZA ARRIGARRI!

(A. 58)

1.—*Oi gauza arrigarri, ziñeskai aundia!
Altarean dago Jesus estalia.
Or dago egiñik gure janaria:
oi, au mesedea! oi gure zoria!*

2.—*Ez dot nire begiz Jesus Jauna ikusten,
Ezta gorputzeko zentzunez aditzen.
Baiña sendoro dot or dala sinisten,
fedez argiturik or dot ezagutzen.*

3.—*Jaunak egin eban azken aparia,
jateko emonik Bere aragia.
Aragi santu ori jaten dot nik bere:
au janaz uste dot bizi beti bere.*

28 SANTU, SANTU

(M. D. A. 8 orr.)

— *Santu, santu, santua,
zeru goiko Aingeruen Jainko Jaun indartsua.
Beterik daukaz zeru-lurrak
zure ospearen indarrak.
Gora, gora, Jaungoiko Jauna,
zeru goienetaraiño.*

— *Auzpez agur eta ongi etorri
Jaunaren izenean datorrenari.*

— *Gora, gora, Jaungoiko Jauna,
zeru goienetaraiño.*

29 ZUGAZ BIZI NAI DOT

(A. 43) (Doiñua: erderazko "Cerca de Ti")

1.—*Zugaz bizi nai dot, Jesus ona,
Zuk berotu daizun nire biotza.
Illun nago beti Zugaz izan ezik:
ez dot gura beste maitetasunik.*

2.—*Nire biotzera eldu zaitez,
biok alkarrekin bizi gaitezen.
Bete naizu beti zure Gorpuztagaz,
atsegindu naizu zure Odolagaz.*

30 OSTIAN BIZI ZARA

(M. D. A. 17 orr.)

- Ostian bizi zara gau ta egun nigaitik:
maiteko zaitut beti biotz-biotzetik,
maiteko zaitut beti biotz-biotzetik.
- Gurutzeratu zaitu inpernuak eta munduak ukatu;
Sagrarioan, bakardadean, or illunpean baztertu.
Baiña guk, Jesus, Zu maitatzea,
edo iltea nai dogu, edo iltea nai dogu.

31 ZUTUNDU ETA URRERA

(E. A. 22 orr.)

- Zutundu eta urrera Jainkoaren mai-aurrera;
goazen anaiok batera, Jaunak emona jatera.
- 1.—Ona gure indargarri, ona guztion lokarri:
lagun deiogun alkarri erakusten da etorri.
- 2.—Gure janari, Jauna, Zu; Zeuk salbatuak gaituzu;
erri au zure zain dozu: indartsu jagon egizu!

32 GORATU DAGIGUN

(Doiñua: Busca Sagastizabal'en "Cantemos al amor...")

- Goratu dagigun alkar arturik gure Jaun laztana,
Kristo Eroslea, Ostian dagoana:
gurtu daigun apal auzpezturik.
Gora ta gora Jesus, zeru ta lurren
Jaun eta Jaubea.
Oiu alaiak Zuri, orain ta beti:
maitasuna Zuri, Jaun maitea.

33 ONA BILDOTS EZTIA

(A. 49)

- Ona Bildots eztia, egiazko Ogia:
zerutik da jatxia, Jainko maitia.
 - 1.—Gure Artzain ona — ta Egillea,
Aitarik maiteena — zero emollea.
 - 2.—Ostian zaozala — dogu sinesten;
zeruan zaran lez — or gu maitatzen.
-
- 5.—Maitatuko zaitut — orain lurrean,
gero maitatzeko — zero ederrean.

34 OR ZAGOZ JESUS

(A. 138)

- Or zagoz, Jesus, altarean:
gorde nai zaitut biotzean,
gorde nai zaitut biotzean.
- 1.—Zeruetako Jaun aundia, egiñik gure janaria:
O maitetasun ugaria, gizonarentzat geiegia !
- 2.—Ontasun danen iturria, ilteko gure egarria:
O ezkutapen pozgarria, zero ta lurren miraria !

ESKERRAK EMOTEKO

35 GORA JAINKOA

(B. 150 s.; 706 orr.; B. Ak.: 242 orr.)

- Gora Jainkoa — bere etxean,
gora zeru-gain — ederrean.

36 JAUNA DOT ARTZAIN

(B. 22 s.; 80 orr.; B. Ak: 44 orr.; M. D. A. 17 orr.)

- Jauna dot Artzain, — ez dot izango — nik goserik.
Ak emoten deust — zer jan onik.

37 KANTU BARRIA

(B. 95 s.; 432 orr.; B. Ak.: 158 orr.)

- Kantu barria — jo Jaunari:
erri guztiak — gora! Ari.

38 KANTA JAUNARI

(B. 99 s.; 451 orr.; B. Ak.: 163 orr.)

- Kanta Jaunari, — lur guztia:
egin gogotik — Aren naia.

39 ZAKARIAS'EN ERESIA

(B. 731 orr.; B. Akesolo: 253 orr. 7)

- 1.—Jainko-semeak — gaur kantari
emon eskerrak — Jaun onari.
- 7.—Ona Ogia — ogi bizia:
beti betiko — gaitu biztuko.

40 POZTU TA KANTA

(B. 117 s.; 560 orr.)

- Poztu ta kanta,
Jauna il eta
biztu da-ta.

41 ESKERRAK BETI

(l. 18 orr.)

- Eskerrak beti Jaunari,
izan dogu ba janari.

MEZA - AZKENERAKO

42 DOMEKETAN ELEIZAN

(E. A. 39 orr.)

- Domeketan eleizan zein pozik gabiltzan.
Eleiza da Jainkoa bizi dan lekua,
eleiza da biotza erri guztikoa...
Domeketan eleizan zein pozik gabiltzan!
- 1.—Jainkoaren etxea zara zu, eleiza:
or dago gu maitatzen Jesus'en gorputza.
Or guretzat otoika erriko apaiza,
altarean emonaz egunero Meza.
- 2.—Eleizan ikasi dot Jaunaren egia,
kantuz gora zeruko pozaren aundia,
baita sarri artu be Jesus janaria,
danok bateratzeko zerutik jatsia.
- 3.—Fededunen etxea zara zu, eleiza,
or bat egiten da-ta guztiion biotza;
or domekaz domeka pozarren gabiltza,
zelan ez nozbait goza zeruko Eleiza.

43 GORA ZU

(E. A. 32 orr.)

- Gora Zu, Jesus Jauna,
zure il-berbiztez salbau gaituzuna.
Mundu guztian zabal dedilla zure izen ona
ta betor Zugana neketan dagona.

44 JAINKO GIZON EGIÑARI

(M. D. A. 13 orr.)

- Jainko gizon egiñari — agur, ospe, goresprena.
Jesukristo Erregeri — esker, otoitz, maitasuna.
- 1.—Mundu guztiak egin deiala Jesukristo'ren naia;
mundu guztira zabal dedilla Ak ekarriko argia.
 - 2.—Aita Santuak euki bei beti Jainko Jaunaren laguntza,
gizon guztiak zerura jasoz aurrera dedin Eleiza.
 - 3.—Ager dedilla danetan Jesus, etxean eta errian,
danon berbetan, zarren begina eta gazteen irrian.

45 JESUS MUNDUKO ARGIA

(M. D. A. 14 orr.)

- Jesus, munduko argia.
Jesus, ziñezko egia.
Jesus, betiko bizia.
- 1.—Jesus Jainko gizona, Zuri gure bizia;
ona non dozun, ona, euskaldun gazteria.
 - 2.—Gure biotz barruan emon zure argia,
gaitezen gu munduan, argi Jainkoz betia.

46 KRISTO GURE ERREGE

— Kristo, gure Errege, agurtu dagigun!
 Zeru-lurren jabe autortu dagigun!
 Fede bizi baten danok ernai,
 zureak gara gu, o Jesus, bai!
 Zureak gara gu, o Jesus, bai!
 Zu beste jaberik ez dogu nai!

47 MEZA AMAITZEAN

(I. 19-20 orr.)

— Meza amaitzean gure biotzak
 beterik dagoz eskarrez;
 bertan ikusi dogu guk Jauna
 beterik aintza ta oñazez.

Goazen errira, kristau-usaiña
 bear dogun lez zabaltzen;
 egi, maitasun, oitura onak
 erri guztian ereiten;
 jardun, jolas, bizi dan-dana,
 gure zeregin amesa,
 izan daitezan Jaunaren aurre
 kristau-bizitzaren Meza,
 kristau-bizitzaren Meza.

ILDÀKOEN MEZATARAKO

48 BETI BETIKO ZORIONA

(B. 64 s.; 271 orr.; doiñua, 5'garrena)

— Beti betiko zoriona — gure illeri emon Jauna.

49 JAUN ORREK, ENTZUN

(B. 48 s.; 214 orr.; doiñua, 5'garrena)

— Jaun orrek, entzun ilen oia:
 emolezue zeure zerua.

50 MEZ'AU BEKIZU

(B. 129 s.; doiñua, 1'goa edo 3'gna.)

— Mez'au bekizu, Jauna, gogoko:
 zure bizian illak sartzeko.

51 BETI BETIKO

(B. 142 s.; doiñua, 1'goa edo 3'gna.)

— Beti betiko izan daiela — zeruetako argi zabala.

GABONALDIRAKO

52 AINGERU BATEK DIÑO

(A. 82)

- 1.—Aingeru batek diño goi-gora basoan
aurtxo bat jaio dala bart gure auzoan.
Berari zoriona daiogun eskatu;
danok bear dautsagu ederto abestu.
- 2.—Ez ete zan, Maria, orduan artzaiñik,
Jesus agurtutzena leiatuko zanik?
Bai, artzaiñak nebazan orduan ikusi,
ta euren biotz onak nebazan onetsi.
- 3.—Esaiguzu, Maria, ba zan Erregerik
zure Seme Jainkoa ikusi ebanik?
Iru Errege ziran urrundik etorri
eta beren emaitzez eben ederretsi.

53 AUR EDER BATEN BILLA

1. Aur eder baten billa — gabiltza zoratzen,
ta izarrak esan deusku — jaio dala emen.
Jaungoikoaren erri — maite, Jerusalen,
esan eiguzu laster — Jesus nun jaio den.
- 2.—Estalpe zar batean — dago otsez dardaraz:
laster nai dogu Jesus — berotu arnasaz.
Jaungoikoaren erri — maite, Jerusalen,
esan eiguzu laster — Jesus nun jaio den.

54 BELEN'EN SORTU JAKU

- 1.—Belen'en sortu jaku Jainko
arratseko gaberdian:
otsez dardaraz dago gaixoa
lasto pixkaren ganean.
Arnasa beroz berotu daigun
apa emonez mosuan.
- 2.—Maitasun sutsuz maite dot ama
ni sortu ninduelako;
baiña ume au maiteago dot
nigaitik jaio dalako
ta gurutzean gero odol deuna
ixuriko davalako.

55 BIOTZ SUTUAZ

- Biotz sutuaz — Belen'a goazen,
aingerua dago — ara gu deitzen, ara gu deitzen.*
- Gabaren erdian, zeru garbian,
eguzki barri bat agertu da bart:
Ama Birjiña zan zeru garbia,
eguzkia Jesus jaio-barria.

56 BIRJIÑA MAITE

- (A. 74 z.; 162 orr.)
- Birjiña maite, lotan dago zure Seme laztana;
seaskatxoan ipiñi eizu gure biotzen kutuna.
- 1.—Ongi bai ongi igaro daizan gabak eta egunak;
poliki poliki eragiozu egin daian lo ona.
 - 2.—Zeru goi-goitik gugana dator gure Jesus laztana.
Lasterka lasterka goazen kristauok gure Jaunarengana.

57 GAU IXILLA

- Gau oskarbi, izar argi, zerutik da etorri:
Jainkoaren Seme jaio-barri,
aingeru danen poz-iturri,
gogo oneko gizonei bakea dautse ekarri.
- Goazen danok Belen'era, artzaiñekin batera,
Jainkoia lastotan ikustera,
esku txikiak laztantzera,
gure Jesus maiteari biotza eskeintzera.
- Gau ixilla, gau donea, danak lo, bakarrik
senar-emazte deunak ernai,
ule kizkurdun Aurtxo eder oi !
Lo, lo, Aurtxotxu, lo;
lo, lo, Aurtxotxu, lo.

58 JAINKO MAITEA

(E. A. 43 orr.)

- Jainkoia maitea, Jesus bialdu:
arpegi ori erakuskuzu.
- 1.—Zure indar ori biztu eizu;
zatoz, Jaun ori, gu salbatzera;
zatoz, bai, Zu.
- 2.—Biurtu gaizuz, bai, lenera;
maitez begitu ta etorri
gu salbatzera.

59 MESIAS SARRITAN

- Mesias sarritan agindu zana
aingeru artean dator gugana...
"Gloria zeruan, bakea emen"
kantari aingeruak dagoz Belen'en.
- Belen'go portalean negu gogorrean,
jaio da gure Jesus askatxo batean.
Estalpe barik dago abere artean
gutziz altsua dana zero ta lurrean.
- Antxe dago gure Jesus, antxe dago, bai:
Aurtxo txikia askan dago,
Amak esautso lo egiteko...
Baiña Aurtxoak, begiakin,
esaten dautso : "Ama, ezin".

60 OI BETLEEN

- Oi Betleen ! Etorri da zure garaia,
Oi Betleen !
- Ongi bai'dau dizdiratzen
Zugandik eldu den argiak:
betetzeitu bazter guztiak...
Oi Betleen ! Oi Betleen !
- Artzaiñekaz eldu naz Zugana leiaz,
artzaiñekaz.
- Ta eurak lez egin guraz
adoratzen zaitut, Mesias,
eta maite biotz guztiaz...
Artzaiñekaz, artzaiñekaz.

61 ZATOZE KRISTAUAK

(“Adeste fideles”)

- Zatoze kristauak, biotzak pozturik,
zatoze guztiok Belen'era,
jaio dan Ume Jesus ikustera...
Jauna gurtu dagigun,
Jauna gurtu dagigun,
Jauna gurtu dagigun, auzpezturik.
- Ardiak itzita datozi artzain onak,
zerutik deituak estalpera:
goazen gu bere eurekin batera.
- Gure maitasunez askatxo batean,
otzik dardar zaozan Jesus ona:
erdu gugana, Umetxo laztana.

GARIZUMA TA PARKOALDIRAKO

62 ALELUIA

(E. A. 59 orr.)

- *Aleluia, aleluia, aleluia.*
- 1.—*Kanta kristauak, Jaunari kanta,*
Salbagillea Jainko izan ta
il zan, baiña biztu da-ta.
- 2.—*Zabal, Jauna, zure arnasa,*
Iur guztiak daian goza
zure Pazkotako poza.

63 DAMU DOT, JAUNA

(A. 190)

- *Damu dot, Jauna, biotz guztitik,*
Zu naigabetu izana;
ez, ez geiago pekaturikan,
nire Jaungoiko laztana.
- 1.—*Miñaren miñez, Jesus maitea,*
daukat biotza lerturik,
ikusiagaz nire bizitza
dana pekatuz beterik.
- 2.—*Zure oiñetan orain naukazu*
begi-biotzak urtutzen,
barru-barruko negarrarekin
parkaziñoa eskatzen.

64 ERDU, PEKATARIA

(A. 188)

- *Erdu, pekataria, erdu eleizara,
Jaungoikoaren itza gogoz entzutera.*
- 1.—*Ez egon pekatuan, ez egon Iuzaro,
damu izan ez daizun alperrikan gero.*
- 2.—*Pekatuen neurria bete ez dagizun,
aditu Jaungoikuak zer esaten dautsun.*
- 3.—*Gurutz ganetik Jesus or daukazu deiez:
itzi bide gaiztoa ta damutu zaitez.*

65 ERDUE KANTUZ

(B. 94 s.; 427 orr.)

- *Erdue kantuz Jaunagana.*

66 JAINKO JAUNAREN

(B. 67; 291 orr.)

- *Jainko Jaunaren Espiritua,
itzi mundua santutua.*

67 JESUS GURE JAUN MAITE

(A. 192 z.; 264 orr.)

- *Jesus gure Jaun maite, atsekabetua,
damu dogu guztiok, damu dogu guztiok
Zu naigabetua, Zu naigabetua.*
- 1.—*Josirik ikustean gurutze orretan Zu,
errukiz, ai!, biotza, errukiz, ai!, biotza,
nok urratuko ez dau? nok urratuko ez dau?*

- 2.—*Baita baleuko bere, arri biurtua...
Damu dogu guztiok, damu dogu guztiok,
Zu naigabetua, Zu naigabetua.*

68 PEKATARIOK AMA

(A. 193 z.; 266 orr.)

- *Egizu Zuk, Maria, gugaitik erreagu,
eriotzako orduan ez gaitezen galdu.*
- 1.—*Pekatariok, Ama, Birjiña zaitugu :
Zugan gure biotza guk ipinten dogu.*
- 2.—*Zure izen santuak lagundu bekigu;
zure biotz onean itxaroten dogu.*
- 3.—*Pekatarien Ama samurra zara Zu,
arren zure semetzat, Ama, artu gaizuz.*

69 ZABALDU EGIZUZ

(E. A. 52 orr.)

- *Zabaldu egizuz, Jauna, zure errukizko ateak,
eta askatu guregan pekatuaren kateak :
parka, Jauna, zure semeen utsegiteak.*
- *Parkatu eiguzu, Jauna, egin dogun txarragaitik;
parkatu baita egiteko itzi dogun onagaitik,
eta ez gaitezen aldendu zure bidetik.*

70 ZERU ETA LURRAK

(E. A. 58 orr.)

- *Zeru eta lurruk, poztu ta kanta,
gora gure Jauna, berbiztu da-ta.*
- 1.—*Eriotsaren kateak apurtu ditu,
bizidunen Jaunak askatu gaitu.*
- 2.—*Zu zaitugu, Jauna, gure Pazko-zuzia:
nun-nai zabal zure argi ta bizia.*

71 ZERU-LURREKO

(B. 46 s.; 205 orr.; B. Akesolo: 47 orr. 2)

- *Zeru-lurreko Jaun eta Jainko
zagoz Zu, Kristo, beti-betiko.*

72 ZURE BESOTAN

(K. 306)

- *Oi Gurutzea, oi Gurutzea,
Gurutze santu maitea!*
- 1.—*Zure besotan, oi Gurutzea,
il jaku Jesus maitea:
aren gurutze jositzaillea
neu naz, neu, pekataria.*
- 2.—*Jesukristo'ren odolak zaitu
Kalbarioan gorritu:
iñok geroztik munduan ez dau
Zuk ainbeste dirdiratu.*

AMA BIRJIÑARI

73 AGUR, AMA MAITEA

(E. A. 37 orr.)

- *Agur, Ama maitea, agur zuri, agur:
agur, graziz betea, agur zuri, agur.*
- 1.—*Jainkoak bere Amatzat zu begiz jo zinduzan:
egizu Jaunak gu bere semetzat artu gaizan.*
- 2.—*Zuk baietta emon zeutsonez aingeruen berbari,
guztiok egin gaitela Jaunaren serbitzari.*

74 AGUR ERREGIÑA

(A. 163 z.; 241 orr.)

- *Agur, Erregiña, Ama errukiorra,
gure bizitza, gozotasun eta itxaropena: Agur.
Zuri deiez gagoz, Eba'ren ume erbestetuok;
antsiz eta negarrez gatorriz negar-erri onetan.
Ea bada, gure bitarteko Andrea:
zure begi errukitsu orreik
gugana biurtu egizuz,
eta erreste onen ondoren erakuskuzu Jesus,
zure sabeleko Seme onetsi ori.
O biotz bigun!, o errukior!,
o Maria Birgiña gozoa!
Gure alde otoi egizu, Jaungoikoaren Ama done orrek,
Jesukristo'ren agintzariak jadetsi daikeguzan.
Amen, Jesus.*

75 AGUR JESUS'EN AMA

(A. 122 z.; 211 orr.)

— Agur, Jesus'en Ama Birjiña maitea,
agur, itxasoko izar ditziratzaillea;
agur, zeruko eguzki, poz utsez betea,
agur, pekatarien kaia ta estalpea.

Baiña Zugandik alde biotzak ezin dau,
Zugana berez doa, Zugan bizi nai dau.
Birjin bardinbagea, onetsi gagizuz:
Agur, Ama geurea, agur, agur, agur!

76 AGUR, MARIA

(B. 44 s.; 196 orr.)

— Agur, Maria, dana grazia;
agur, Maria, dana garbia.

77 AMA EDER GARBI

(A. 143 z.; 219 orr.)

— Ama eder, garbi-garbi, Ama maite kutuna:
zuretzat gure biotza ta gure maitasuna.
Zu maitez bizi nai dogu, Zuri beti abesten:
egizu, Ama, zureak beti izan gaitezen.
Lagun eiguzu, arren, Ama ona!
ai, begiratu eriotz orduan.
Ama maite, beti-beti Zurekin nai dot zeruan,
axe bai zoriona! axe bai zoriona!

78 AMA MAITE MARIA

(A. 171 z.; 249 orr.)

— Ama maite Maria, egiguzu lagun,
zure bitartez Jesus ikusi dagigun.

1.—Aingeruzko lirio txit edergarria,
usain gozozko lore zerutik jatxia:
gorde gagizuz, Ama guztiz maitatia,
ez dagigun zikindu onbide garbia.

2.—Zure koroi ederrak ugaritutzeko,
arren eskatzen dautsut lagun egiteko.
Zatoze, bai, gazteak, zeruratutzeko,
Birjiña deiez dago Agana joateko.

79 AINGERU BATEK

(K. 167)

1.—Aingeru batek Maria'ri diñotso "graziz betea,
Jaungoikoaren Semeari emongo'tsazu sortzea".

— Goiz, arrats eta eguerditan, Ama, goresten zaitugu;
aingeruaren itzak eurak guk bere esaten ditugu.

2.—Jaungoikoaren nai santua nigan dedilla egiña:
izan nadin bai bere Ama, baiña geldituz birjiña.

3.—Jaungoikoaren Seme maitea gizatasunez da jazten:
oi ontasun egiazkoa, Jauna gurekin egoten!

80 AURRERA!

(A. 173 z.; 250 orr.)

- Aurrera, kristau fedez beteak, aurrera Maria'rengana.
Aurrera, bai, gaur eskeintzera danok biotz eder bana.
Begira an gure Ama, begira zeiñ ederra dan,
ez da jatxi Ama oberik zero goitik lurrera.
- Gure Ama biotzekoa munduaren erdian
Erregin koroiatua ikusi artean,
gerra beti, gerra bizia, gure etsai gogorrakin,
su ta gar badatoz ere inpernu baltzakin.
- Zu izango zara, Zu izango zara, Ama, bai,
euskaldunen Erregiña, gure errien atsegíña.
Beste Amarik ez dogu nai:
entzun begi, entzun begi deabruak
zure oñazpian zapalduak:
gogor beti, gogor etsaiari,
gora Maria'ri, bai !
Aurrera, bai, aurrera beti,
kristau euskaldunen fede sutua:
aurrera, bai, gurekin dator
Ama Birjiña garbi sortua.

81 BEGOÑA'KO AMA

- Begoña'ko Ama samur maitea,
izan zaitez gutzat zero-bidea.
- 1.—Begoña'ko Birjiña, Bizkai'ko Erregiña,
Jainkoaren Ama:
Zuregana datorren erri oneri egin
abegi onena.

2.—Eleiza onetara igon eben asabak

Ama ikustera;
gure amak onaxe umetxotan ekarriz
Zuri eskeintzera.

82 BEGOÑA'KO ANDRA MARI

- Begoña'ko Andra Mari, Bizkai'ko Zaindari:
zure seme maitaleak Zugana kantari.

- 1.—Itxas-gizon siñestunak Zugan dabe kabi:
artzain gaixo menditarrak Zugan euren begi.
Lugin eta langilleak Zuri otoiari,
aberatsak ta txiroak zaituela argi.
Ama maite biotzeo, bigun eta garbi !
Bizkai'ko seme-alabak artu ta zain beti !

- 2.—Gure lanak eta amesak zerutik onetsi;
zuzenbide ta bakea danontzat jadetsi.
Eriotzan gure alde otoi ta erruki,
Zure ondoan zoriona izan daigun beti.
Ama maite biotzeo, bigun eta garbi;
Bizkai'ko seme-alabak artu ta zain beti !

83 BIZKAI'KO SEME

(A. 266 z.; 329 orr.)

- Bizkai'ko seme leialak, otoitz-ordua eldu jaku:
gure Begoña'ko Amari biotza eskeiñi daiogun.
Itxaso eta Iurrean maitasunez zaintzen gaitu.
Begoña'ko Ama biguna: zure onespina emoiguzu !

84 EDERTASUN GUZTIAZ

(A. 263 z.; 324 orr.)

- Edertasun guztiak ziñalako sortu,
lurbira ta zerauk goratutén zaitu.
Jatorrizko erruak etzinduan loitu:
sortzez ain garbi-eder, bakarrik zara Zu.
- Zeru garbi urdiña da zure irudia,
izar eder-ederrez biziго josia.
Ainbat donetasunez zaozela jantzia,
sortze bertatik, Ama, osoro garbia.
- Agur, agur, agur Maria:
agur, agur, guztiz garbia.

85 EUSKALDUNOK

(K. 222 z.; 350 orr.)

- Euskaldunok, o Birjiña Maria,
maitasunez goratzen zaitugu.
Ain zara on, altsu, miragarria...
ezin esan zein eder zaran Zu!
- Zu zaitugu, Ama ona,
euskaldunen Erregiña.
Gure alde otoi Jauna
eta emon zoriona.

86 GAUR DA MARIA

(Magnificat: B. 722 orr.; B. Ak.: 252 orr. 4)

- Gaur da Maria izaten asi:
dana grazia, Satan'en nausi.

87 GOAZEN, GOAZEN

(A. 168 z.; 245 orr.)

- Goazen, goazen guztiok Birjiña Amagana,
eskeintzera biotzez loretxo eder bana.
- 1.—Lora mota guztiak Iurraren ganean
zure antzeko dira edertasunean, edertasunean.
- 2.—Bardiñik ez dozula garbitasunean
lirio ederrak diño arantza-tartean, arantza-tartean.

88 IZAR EDER

(A. 146 z.; 223 orr.)

- Izar eder-eder, zoragarria,
zeru-goian, zeru-goian, zara Maria.
Izar eder, zoragarria,
zara Maria, zara Maria.
- Goizeko izarra ez da ain ederra,
Ama, dan legez, dan legez zure sorrera.
Guztiz ederra zara, Maria,
sortzetik zara garbi-garbia.

89 JAINKOAREN AMA

(A. 166 z.; 244 orr.)

- *Jainkoaren Ama, Ama guztiz ona, zaitugu maite beti, beti: zaitugu maite beti, beti.*
- 1.—*Gure esker gaiztoak zure biotza dabe erdiratzen, samurra baita: gutzaz izan eizu beti errukia, beti, beti.*
- 2.—*Gugandik etsaiak bialdu egizuz, gugana begiak itzul egizuz: Ama guztiz ona, gure alde egizu, beti, beti.*
- 3.—*Zureak betiko izan nai dogu, zure biotz onak artuko gaitu: Ama guztiz ona, maitatzen zaitugu, beti, beti.*

90 MAITE ZAITUGUN AMA

(A. 148 z.; 226 orr.)

- *Maite zaitugun Ama Birjiña Maria: izan eizu gurekin beti errukia. Zu zara gure nekeen poz-asetzaillea, gure biotzarentzat izar pozgarria.*
- *Kanta dagigun alai biotz-biotzetik Maria'ren izena gloriaz beterik, ez dala guretzako naigabe ta miñik lagunduten ba'dausku Birjiñak zerutik.*

91 NERE AMA

(A. 156 z.; 235 orr.)

- *Nere Ama on-laztana, zuretzat artu naizu: lagundu ta gorde beti, zeruratu nagizu, lagundu ta gorde beti, zeruratu nagizu.*
- 1.—*Ama batek ezin ba'dau semea txarto ikusi, zelan amarik onenak al izango nau itxi.*
- 2.—*Negarrezko erbestean asko igarotzen dogu: gure malko samintsuak, arren Ama, legortu.*
- 3.—*Nai ba-dozu, diño Amak, Jesus'egaz bizi, pekatutako bideak bene-benetan itxi.*

92 ZERU ETA MUNDUAK

(A. 159 z.; 237 orr.)

- 1.—*Zeru eta munduak zurekin pozturik, kanta-kantari dagoz biotzak suturik.*
- *Agur, agur, agur Maria: agur, agur, guztiz garbia.*
- 2.—*Maria, sortu ziñan orban bagekoa, donetasun guztiaz apaindutakoa.*
- 3.—*Oiñ-azpian lerturik Luzbel'i burua, garaitu dozu, Ama, betiko inpernua.*
- 4.—*Zeru eta munduen poz eta atsegina, zara biotz guztien jaube ta erregina.*
- 5.—*Gure etsaiak dabiltz gu galdu naiean, baiñan Maria'k ditu lertuko oiñ-azpian.*

93 ZERUKO AMA

(P. 159)

- Zeruko Ama, izar argia, zugana gatoz poz-pozik.
Geure biotzak artu euguzuz, zaindu gagizuz zerutik.
- Gomutau zaitez, Ama on-on,
iñoi be entzun ez dala
Zuri deitu ta laguntza barik
iñortxo itxi dozula, iñortxo itxi dozula.

94 ZURE JANTZIA

(B. 112 s.; 534 orr.)

- Zure jantzia, zuri-zuria:
zure begia, bai eguzkia!

SANTU BATZUERI

95 JOSE DOATSUARI

(A. 210 z.; 278 orr.)

- Eleiz Ama Deunaren zaindari aundia:
entzun eizu zerutik gure otoitz-deia.
- Jesus eta Maria, zu il ziñanean,
laguntzen egon ziran, Jose, zure aldean.
Atoz, atoz bai, laguntzera, zori ain larrian,
il, il gaitezan gu bere Jaunaren bakean,
il gaitezan gu bere Jaunaren bakean.

96 MIKEL AINGERUARI

(A. 159 z.; 237 orr.; Lurdes'ko "Ave, ave...")

- Mikel, Mikel, Mikel guria,
gorde, gorde, Euskal-erria.
- 1.—Goazen euskaldunok Aralar'era,
Mikel Aingerua bisitatzen.
- 2.—Aralar mendira igon gaitezen,
Mikel ikustea ez gara aspertzen.
- 3.—Aitortu dagigun bere aurrean
naiko dogula il geure fedean.
- 4.—Euskaldun-lurrean giñean jaio,
gure sinismena bizirik dago.

97 LOYOLA'KO IÑAZIO DEUNARI

(A. 288 z.; 368 orr.)

- Iñazio, gure zaindari aundia,
Jesus'en Lagundia zuk bildu eta indartu dozu :
ez da ez etsairik jarriko jatzunik
iñolaz aurrean gaurko egunean,
naiz betor Luziper deabrua
itzirik inpernua.
Zure Lagundia beti da bildur bage,
bere Jaun ta Jaube da Jesus aundia.
Garaitu ditu zure Lagundiak etsaiak :
ez dauka Eleizak, ez Euskal-erriak,
ez dauke bildurrik iñungo aldetik...
Iñazio or dago, beti ernai dago,
su-garrez betia dauka Lagundia
guda-guda nairik, ikurriña zabalik :
gau ta egun guk guztioik bakea dezagun,
beti gau eta egun.

98 XABIER'KO PRANTZISKO'RI

(K. 14)

- 1.—Aditurik Loyola'ko semea
zeugaz jardunean Jaungoiko Jaunaz,
bereala mundutik urruntzea
egin dozu, geroa susmauaz.
— Euskaldunen lora bardinbagea:
zuri gagoz oiu samiñetan,
entzun eizu erritarren eskea,
or zagoz ba zero gain-gaiñetan.

2.—Zu ziñean autatua Jainko'a'k,
otz ziranak berotzeagaitik.
Egiguzu gure biotz oztuak
sar daitezan utan gaur bertatik !

99 BERRIO-OTXOA'RI

(A. 275 z.; 342 orr.)

- Bizkai'ko seme goragarria, Elorrio'ko lorea :
aintza ta gora, gure Balentin, zorunez bete-betea.
— Bizkai'ko lorategian erne dan lorarik ederrena;
bere ortzian argi dagian izarretan argiena;
bere semien artean Jainko-maitalerik zintzoena...
Entzun eiguzu zero ortatik gaur dagitzugun arrena.

AURKIBIDEA

MEZEAREN EGUNEROKOA	Orrillak
---------------------	----------

MEZA - ASIERAKO	3
-----------------	---

1. Alkartu danok	11
2. Biotz batez alkarturik	12
3. Igon nadin	12
4. Ikusten dogu	13
5. Jainko Jaun zerukoia	13
6. Sartu eleiz santu ontan	14
7. Zein gozo ta eder dan	14
8. Zugana gatoz	14

IRAKURGAIEN OSTERAKO

9. Agur, ospe	15
10. Aintza ta onespena	15
11. Aleluia	15
12. Gora Zu	15
13. Jaunagan dogu	15
14. Zure berbea	16
15. Siñesten dot	16

ERRI - OTOITZERAKO

16. Biotz onez	17
17. Entzun, Jauna	17
18. Entzun, Jauna	17

ESKEINTZARAKO

19. Artu, Aita	18
20. Miragarri ta aundia da	18
21. Ogia ta ardaoa	19

JAUNARTZFRAKO

22. Abestu daiogun	20
23. Aingeruen jana	20
24. Arin-arinka	21
25. Jainkoaren Bildotsa	21
26. Ogi zerutik	22

Orrillak

27. Oi gauza arrigarri!	22
28. Santu, Santu	23
29. Zugaz bizi nai dot	23
30. Ostian bizi zara	24
31. Zutundu eta urrera	24
32. Goratu dagigun	24
33. Ona Bildots eztia	25
34. Or zagoz Jesus	25

ESKERRAK EMOTEKO

35. Gora Jainkoia	26
36. Jauna dot Artzain	26
37. Kantu barria	26
38. Kanta Jaunari	26
39. Zakarias'en eresia	27
40. Poztu ta kanta	27
41. Eskerrak beti	27

MEZA - AZKENERAKO

42. Domeketan eleizan	28
43. Gora Zu	29
44. Jainko gizon eginiari	29
45. Jesus munduko argia	29
46. Kristo gure Errege	30
47. Meza amaitzean	30

ILDAKOEN MEZATARAKO

48. Beti betiko zoriona	31
49. Jaun orrek, entzun	31
50. Mez'au bekizu	31
51. Beti betiko	31

GABONALDIRAKO

52. Aingeru batek diño	32
53. Aux eder baten billa	32
54. Belen'en sortu jaku	33
55. Biotz sutuaz	33
56. Birjiña maite	33
57. Gau ixilla	34
58. Jainko maitea	34
59. Mesias sarritan	35
60. Oi Betleen	35
61. Zatoze kristauak	36

GARIZUMA TA PARKOALDIRAKO

62.	Aleluia	37
63.	Damu dot, Jauna	37
64.	Erdu, pekataria	38
65.	Erdue kantuz	38
66.	Jainko Jaunaren	38
67.	Jesus gure Jaun maite	39
68.	Jesus gure Jaun maite	38
69.	Pekatariok Ama	39
70.	Zahaldu egizuz	39
71.	Zeru eta lurrik	40
72.	Zeru-lurreko	40
	Zure besotan	40

AMA BIRJIÑARI

73.	Agur, Ama maitea	41
74.	Agur Erregiña	41
75.	Agur Jesus'en Ama	42
76.	Agur, Maria	42
77.	Ama eder garbi	42
78.	Ama maite Maria	43
79.	Aingeru batek	43
80.	Aurrera!	44
81.	Begoña'ko Ama	44
82.	Begoña'ko Andra Mari	45
83.	Bizkai'ko seme	45
84.	Edertasun guztiaz	46
85.	Euskaldunok	46
86.	Gaur da Maria	47
87.	Goazen, goazen	47
88.	Izar eder	47
89.	Jainkoaren Ama	48
90.	Maite zaitugun Ama	48
91.	Nere Ama	49
92.	Zeru eta munduak	49
93.	Zeruko Ama	50
94.	Zure jantzia	50

SANTU BATZUERI

95.	Jose Doatsuari	51
96.	Mikel Aingeruari	51
97.	Loyola'ko Iñazio Deunari	52
98.	Xabier'ko Prantzisko'ri	52
99.	Berrio-otxoa'ri	53